



Akarregin, pare honetan, zubian pasako litzateke trena eta tunelean barrena Ibarluze poligonoan atera.

Abiadura Haundiko Trenak Hernanin barrena egingo duen tramoak onartu du Espainiako Gobernuak

■ Espainiako Sustapen Ministroak obrak aurten hasi daitezkeela aurreikusi du ■ Trena Akarregi, Zikuñaga, Elorrabi, Osiñaga inguruetatik pasako litzateke ■ Ibilbide definitiboa ez dago zehaztuta oraindik.

MADRILEKO Gobernu zentralak onartu du Abiadura Haundiko Trenaren proiektuaren aurreneko 8 zatietan lanak hastea eta horien artean Hernanitik pasako litzatekeen tramoak dago. Abiadura Haundiko Trenak Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban egingo duen ibilbidea 'Euskal Y' izenez ezagutzen da eta guztira 180 kilometro ditu, baina Madrilen onartu direnak 46 kilometro dira eta horietatik 2,6 kilometro inguru dira Hernanin egin nahi direnak. Ibilbidea egiteko obra aurten hasi liteke eta onartutako 46 kilometroak egiteko 814 milioi euroko

aurreikusten dira, 135.000 milioi pezeta.

Trenaren ibilbidea

Eusko Jaurlaritzak 2001ean osatutako planoaren arabera trenaren ibilbidea izango litzateke: Akarregi eta Zikuñaga artean trena 780 metroko tunel baten barrena joango litzateke eta Ibarluze poligonoan aterako litzateke 17 metro altuko biadurte batera. Elorrabi, Iparagirre eta Altzueta sagardotegi ondortik pasako litzateke ondoren eta 200 metroko tunelean sartu. Osiñagan aterako litzateke gero, Eizmendi eta Otsua-Enea sagardotegien ondoan. Osiñagako tuneletik ir-

teeran, 22 metroko altueran joango litzateke biadurte bategan, Errotarango etxe gainetik. Arrilimoi erreka zeharkatu eta 2.440 metroko tunel batean sartuko litzateke, Urmieta aldean ateratzeko.

Hala ere, plano definitiboa osatu gabe dago oraindik. Izan ere, Espainiako Gobernuak onartutako ibilbidea ez dator bat Eusko Jaurlaritzak 2002an bere kabuz osatutako beste plano batzuekin eta Jaurlaritzaren asmoa da orain berak idatzitakoa Madrilera bidali eta hangoari moldaketak egitea.

Azterketak iaz

Pasa den abuztuan azterketak

egin zituen GIFek Akarregi eta Osiñaga aldean eta idatzitako txostenean ibilbideari hainbat moldaketa egin behar izan zitzaizkion oztopoak medio: trenak Urumeako autobia berriarekin eta GI-131 karretera zaharrarekin gurutzatuko litzateke, trenak beharko lukeen tunelaren iparraldeko ahoa eta Urumea ibaiaren ubidea.

Txostenak Akarregiko poligonoari buruz ere hitz egiten du eta dio poligonoa eraikitzerakoan kontutan hartu beharko dela Abiadura Haundiko Trenaren ibilbidea, izan ere trena bertatik pasatzen da-eta. □

'La Bola de Cristal' gaur Andragoton

ANDRAGOTON *La Bola de Cristal* botako dute gaur arratsaldeko 19:30etan. *La Bola de Cristal*, 80ko hamarkadan arrakasta handia izan zuen haurrentzako saioa izan zen. Bertan Alaska eta Pablo Carbonell bezalako pertsonaje ezagunek parte hartu zuten eta txotxongiloak, musika, antzerki emanaldiak, umorea, imajinarioa eta kritika zeuden bertan. □

Hirigintza Batzordea

HIRIGINTZA batzordea bilduko da gaur Udaletxean eta 3 puntu eztabaidatuko dituzte: Atofina enpresako lizentziaren berri ematea; establezimientuetako soinuaren gaineko Udal ordenantza; eta herriko soinu maparen bigarren fasea. □

'Las mujeres de verdad tienes curvas' filma

BITERIKO zinean gaur *Las mujeres de verdad tienes curvas* pelikula botako dute. Estatu Batuetako pelikula honen zuzendaria Patricia Cardoso da eta arrakasta handia izan du zinean. Pelikulan 18 urteko neska ertamerikar baten istoria kontatzen da eta unibertsitatera joateko aukera duen arren gurasoen oztopoa izango du bere ametsa burutzeko. Neskak bere inguruko emakumeei saiatzen da erakusten beren buruan, larunbatean 19.30etan eta 22:30etan eta igandean 19:30etan, Biterin. □

Elkarri bolondres eske

ELKARRIK 1.000 mahai jartze-koak ditu otsailaren 28an, larunbata elkarriketaren alde firmak biltzeko. Hernani, Urmieta, Andoain, Astigarraga, Lasarte eta Usurbilen 30 mahai jartze-koak dituzte eta 100 boluntario behar dituzte bizpahiru orduz. Prest dagoenak deitu 943 00 06 00 telefonora edo Hernaniko tailerreko kide batekin harremanetan jarri. □

Jubilatu Etxean urteko batzarra bihar

GOIZ Eguzki Jubilatu Elkarteak urteko batzarra egingo du bihar. Batzarrean 2003ko balantzea eta 2004ko proposamena aurkeztuko ditu zuzendaritzak, eta Udal ordezkariak ere izango dira bertan. Lehenengo deialdia arratsaldeko 15:30etan eta bigarrena 16:00etan, Goiz Eguzkin. □

Iñauterien buruzko liburuaren aurkezpena

'HERNANIKO Iñauteriak oroitzuz' liburua aurkeztuko dute gaur. Hernaniko talde eta jendeak egindako erreportaiak, 12 herritarri egindako elkarrizketak, garai bateko eta oraingo argazkiak eta abar biltzen ditu liburuak. Aurkezpena gaur da, arratsaldeko 20:00etan Biterin. □

ALBERRO SAGARDOTEGIA



Sagardo Naturala
tolare
Hernaniko sagardoa
943 550019
Santa Barbara auzoa, 61

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Sagardotegia
Ostegunetik
larunbatera
afariak.
Asteaz zehar, eguneko menuak.



ZINGI-ZANGA
Florida 54 - 943 33 03 97

BASERRIKO SAGARDOA



✓ Ostegunetik igandera irekita
✓ Asteburuan eguerdian zabalik

GOIKO LASTOLA
SAGARDOTEGIA

Sagardogintza mantendu duten baserritarren omenez.

EREÑOZU AUZOA
TEL: 943 553272
HERNANI



Aralarrek esan zuen Nafarroa bai koalizioak ilusio handia sortu duela.

Aralar: "Aurrera begira ezkerreko abertzaleekin indar eraginkorra osatzea nahi dugu"

■ Patxi Zabaleta eta Mikel Besabek hitz egin zuten Biterin asteartean ■ Martxoko hauteskundeetan Gipuzkoatik Madrilen ordezkaritza lortzea espero du Aralarrek.

PATXI Zabaleta eta Mikel Besabek hitzaldia eman zuten Biterin Aralarren proiektu politikoari buruz eta egoera politikoari buruz. Zabaletak azpimarratu zuen Aralarrek aurrera begira duen helburua dela ezkerreko abertzaleak bildu, indar eraginkorra osatu eta eskubiari irabaztea. Indarrak bilzte horren barruan esplikatu zuen EAEn Zutikekin osatutako koalizioa. Zentzu horre-

tan, eta datozen hauteskunde-tara begira, esperantza dute Gipuzkoatik ordezkaritza lortzeko Madrilgo parlamentuan. Aralarreko koordinatzaileak Nafarroa Bai koalizioaz eta abertzaleen arteko elkarlaner ere hitz egin zuen. Bere esanetan, ilusio handia sortu du eta koalizioa Nafarroako bigarren indarretik gertu ibili liteke bototan. Zabaletaren iritziz, egokiaena izango zen Batasu-

na inizatiba horretan sartzea, baina, Zabaletaren ustez Batasunak erabaki hori lehendik hartuta zeukan.

Mikel Besabe Aralar kideak nabarmendu zuen Aralar ezkerreko alderdi independentea eta independentista dela. Garrantzitsutzat jo zuen Madrilen ere ezkerreko ikuspegi independentistaren ahotsa entzutea, bai gai politikoei buruz eta baita AHT bezalako gaietan ere. □

PELOTA

Hernani bihar 'Berria' txapelketan

BERRIA Txapelketa aurrera dijoa eta bihar sartuko da Hernaniko taldea jokoan. Bergararen kontra jokatu beharko du Hernanik eta 3 partidu izango dira: kadete, jubenil eta afizionatu mailan. Herna-

niko taldea ia zehaztua dago: afizionatuetan Zabala-Mendizabal; jubeniletan Erdozio edo Ezeiza eta Gorrotxategi eta kadetetan Ojuel eta Ezeiza II eta Grajal. Bihar, 22:00etan kiroldegian. □

HITZ BITAN

✓ BILDU HERNANI

Igerilekuko gaiari jarraipen zorrotza. Bildu Hernanik Kronikara bidalitako prentsa oharrean Iñaki Barrio Kirol Patronatuko lehendakariari eskatu dio "igerilekuko begiraleen aldeko epaia bete dezala eta bermatu dezala igerilekuko monitorea guztiek bere lanean jarraituko dutela legegintzaldi honetan". Plataformak adierazi du susmoak dituela "Barriok kiroldegiko zerbitzu hau pribatizatu nahi ote duen" eta gai honi jarraipen zorrotza egingo diola esan du Bildu Hernanik. Bestalde adierazi du ikusi dutela Barriok kritikak ez dituela gogoko, baina, "Bildu Hernani beti hor egongo dela jauntxokeriak salatu eta oztopatzeko". Bukatzeko prentsa oharra dio nabarmen gelditu dela "ezker abertzaleak beste era, jarrera eta estiloa izan zuela langileen arazoak konpontzeko orduan" eta horretaz pozten direla.

✓ KINTO BAZKARIA

Bazkaria igandean. 53ko kintoez meza eta bazkaria dituzte igandean. Meza goizeko 11:00etan da Parrokian, hildako kintoen alde eta familiar guztiak gonbidatuak daude. Eguerdian bazkaria daukate Txantxangorin. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak:	943 550093
▶ Udaltzaingoa:	943 333288
▶ DYA:	943 464622
▶ Autobusak:	943 556662
▶ Anbulatorioa:	943 006666
▶ Jokalari anonimoak:	943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez:	Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
▶ Gaez:	Tanco Urnieta. San Juan 36 ☎ 943 550942

Joxe Mari - Rosarito

- Gaur 60 urte ezkondu ziren -

Bidai polita hasi zenuten elkarrekin Astigarragan, gero Hernani eta Muzkin barrena segitzeko.

Eta maitasunaren motorra

*beti bero dago
Santa Barbaran.*



*Zorionak zuen sei seme, bost alaba,
subi-errain eta biloben partetik.*

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,.... ☎ 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Hernaniko estetika zentru batean arratsaldez lan egiteko neska bat behar dugu. Deitu: ☎ 619 32 35 26 - 943 55 15 44

ESKOLA KIROLA ASTEBURUKO EMAITZAK



Saskibaloia	Taldeak	
Benjaminak	Inmaculada-Elizabxo	0-4
Benjaminak	Elizabxo B-Langile B	3-1
Benjaminak	Urumea A-Langile A	3-0
Benjaminak	Urumea B-Langile C	1-3
Benjaminak	Urumea D-Langile a	1-3
Benjaminak	Langile B-Elizabxo A	0-4
Benjaminak	Langile C-Urumea A	3-0
Boleibola		
Kadete mut	Inmaculada-Eskolapio	3-2
Infantil nesk	Izukaiz-Langile	3-0
Infantil nesk	Elizabxo-Lizeoa	0-3
Futbola		
Infantil nes	Loinazpe A-Langile	1-4
Ale.nes	Elizabxo -Urumea	7-6
Ale.nes	Langile B-Langile A	2-1
Ale.mut	Langile C-Elizabxo	3-0
Ale.mut	Langile B-Elizabxo B	5-2

Eskola kiroleko futbol partiduak Karabelgo futbol kanpoan ari dira jokatzeko, Zubipe jokatzeko moduan ez dagoelako.

URUMEA IKASTOLA



Haur Hezkuntza (2-6), Lehen Hezkuntza (6-12), eta DBH (12-16)

Matrikula: otsailaren 16tik 27ra bitarte

Non: Urumean (Gay Mur eraikina, Larramendi 18)

Ordutegia:

09:00-12:00 / 14:30-16:30 (ikastetxea ikusteko aukera)

Telf: 943 55 04 72

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK



Bertako produktuak
Fruitu exotikoak

Telefonoz eskatzeko:
943 33 32 75

Orain helbide berrian gaituz:
Antziola 5



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA

ERREMONTE JAIALDIA:

- part.: Matxin IV - Olazar / Juaristi - Aizpurua II
- part.: Ezkurra - Etxabe / Zeberio II - Lizaso
- part.: Bitoria - Aizpuru / Altuna II - Urko
- part.: Sarasua - Badiola / Iribarren - Urrutia